

argitaldu, itz-egin, abeztu, antzeztu... Edonondik zabalduko da euskelgi oñen *itztegi ta gramatika labur-labur* bat, beste eleřtidun euskelgien ikurakin ; Oñetan edo guziaz emango zaizkion oñitxo batzuetan begi-yote batekin ikusiko ditu lapurřak, bizkaitarřak bere euskelgitik gipuzkoera-eredura dagozan ezantza yakingarřiak.

Bilbon 1920-Epailako 24 an.

BELAUSTEGIGOITIA' TAR P. URGAZLEA.

s XII

-KARI ATZIZKIA

GARILAREN 23' GARREN EGUNEKO BATZAREAN EGUZKITZA YAUNAK
EGINDAKO IKERPENA'

Erabilkerea.

Izenai, zeindiñai ta aditzai ezarten yake :

1º Izenai : agekari, aginkari (ainkari), albokari, aldakari, apaxkari, andrakari (andrekarari), arnokari, ardai-kari, afikari, astekari ... belarřakari, bidekari, bořokari, buřukari, egunkari, egurřakari, eltzekari, gaikari (gaurakari), izerkari, kiñakari, lepakari, mařukari, mendikari, musturřakari, narřstekari, oinkari, ostikari, saunkari, soinkari, untzikari, urřakari, zaingari, zezenkari, etc.

2º Zeindiñai : agerkari, aundikari, beřikari, garbikari, laisteřakari (lasteřakari), legunkari, luzakari, maitakari.

3º Aditzai : arřapakari (arřapari), arřastakari, asmakari, aztakari, bultzakari, egaldakari, egikari, eginkari, ehokari (egokari), egoskari, ekuskari, helkari, emarřakari (emon-ar-kari), emokari, erakuskari, erorkari, eskari,

1. Ikus EUSKERA onen I^{ko} Atala, 77 garren orřian.

igerikari, gertakari, gordekari, jañaikari, ikaskari, induz-
kari, idaulkari, iheskari, iñeskari, ikuskari, jokari (xo-
kari), irakaskari, itzulikari, izakari, sarkari, sendakari,
siñiskari, topakari, etc.

Ofezaz gañera : aintzinkari, arartekari, artekari, ufun-
kari.

Iku'pena.

Itz askotan « egilea » adierazten dau; *adañkari* : beste
batzuetan « izaikia »; *emañkari*.

Egilea.

1° « Agente profesional » adierazten daula diñoa : baña
sañi askotan egilearen berezko ayerkundea (inclinación
natural, instintiva) baño besterik ez dikuñala deritxat.

Esaterako : *adañkari*, *aginkari* (*ainkari*), *apaxkari* (*apaz-
kari*), *añapakari* (*añapari*), *añastakari*, *añikari*, *atralakari*,
auxikari, *aztaparkari*, *boñokari* (*buñukari*), *induzkari*,
iñeskari, *jokari* (*xokari*), *kañakari*, *kiñinkari*, *kuñinkari*,
mustuñkari (*musuñkari*), *mutuñkari*, *ortzikari* (*ozkari*),
ostikari, *ostikokari*, *puñakari*, *puztarkari*, *saunkari*, *tira-
kari*, *topekari*, *tunkari*, *zaingari*.

2° Itz batzuetan « kari » ta « zale » alkañen kide dirala
dirudi. *Andrekari*, *aundikari*, *beñikari*, *burukari*, *emaz-
tekari* (*maztekari*), *gizonkari*, *ihauskari*, *mendikari*, *osta-
tukari*, *solakari* (*solari*), *sorokari*, *zokokari*, *zañapokari*.

3° Berezko ayerkundez naiz zaletasunez egiten dan edo-
zer, lastertxu ekanduz egiten da-ta, ikuña pizka bat eda-
tuaz beste barik « agente profesional » adierazo daike.

Azokari, *belañkari*, *bidekari*, *bizkañkari*, *bolakari*
(*bolari*), *burdinkari*, *soinkari*, *lepakari*, *piltzarkari*, *urzo-
kari* (*usokari*), *zezenkari*.

4° Itz gitxi batzuetan zerbaiten bila dabilena adierazten
dau : *ardaikari*, *urkari*, *urketari*, *eguñkari*, *beñikari*.

5° Iñoz « keri » -ren aldakuntzea dala dirudi : aú-kari = aúferi; aundikari = andikeri.

6° Egunen izenakin iñoz « oro » -ren ordez dagola esan lei : larunbatkari (larunbakari), astelegunkari.

Geyenetan katari (edo = ri) dala okef andi barik esan lei : adarka = adarkari, afika = afikari, bolaka = bolakari, eginka = eginkari, aginka = aginkari, ařastaka = ařastakari, auxika = auxikari; buřuka = buřukari; induzka = induzkari; aztaka = aztakari; joka = jokari; aldaka = aldakari; apaxka = apaxkari, etc.

Izaikia = emafkari.

1° Itz batzuk ikuřpen biak daukez : naiz egilea naiz izaikia adierazten dabe :

andrakari (B) regalos (entre mujeres) : andrekari (BN, S) mujeriego.

asmakari, invento, agorero : asmari.

astekari, molienda semanal : semanero.

egikari (G[?]) acción : (AN) veraz.

eginkari (AN) agente : (L) acción.

eleizkari, funerales : (R) devoto.

helkari (Duv) acontecimiento : (G) mordedor.

eskari, súplica : (AN, BN, R) mendigo.

naikari, deseo, voluntad.

luzakari, dilación, demora : (BN, R) demorador.

naskari, comuña; embrollón (escribano[?]).

salkari (G) mercancías : (R) vendedor.

sendakari (L) remedio : (Duv) medico.

2° Izaikia baño besterik ez dikuř uřen doazan itz oneitan : arimakari, askari, atsalaskari (bat kari Ax) baratze-kari, barazkari, bazkari, eltzekari, gabonkari, gogakari, izerkari, lelenkari, maitakari; ehokari (egokari), egoskari, emafkari (ermakari, amarkai, emarkai) emokari, ekuskari, erakuskari, gertakari (gerthakari), gordekari, ikas-

kari, ikuskari, irakaskari, izakari (izakai, izaiki) izukari, pozkari, siniskari (siniskai) topakari (topatsari) ufikari, urtebañikari, urteburükari, ustekari.

Itz oneitan dakusgun *k* ori atzizkiarena ala geikia (epentética) ete-da? Lenengo ta bein ataturiko itz ofeitatik batzuk idazleak sortu dabez; çbeti zuzen ibili ete-dira? Mendiburu'k ikaskari, enseñanza : Añibaño'k ikasari, estudiante, sortu ebezan çondo sortuak ete-dira? Duvoisin'ek ikuskari, visión, espectáculo : Napañoan ikusari ta kusari, « presentes, regalos » dira. Egoskari'k bere egosari ta eltzekari'k bere eltzari daukez. Eskari ta bazkari eske ta bazka + ari dirala dirudi. Bigañen : euskal-erñiak auzeraz erabili dituan itz oneik : astekari, emarkari, gabonkari, urtebañikari, urteburukari, ba + ari izan daitezke : asteka + ari, emon-arka + ari, gabonka + ari, naiz gabonko + ari, etc.

Itz gitxi batzuk bikotzak dira ta darakusen « ari » erderazko « hilo » da : joskari (jostalari, jostari) : jostalkari (jostelari).

Esandako guzti ori gora-bera « kari » atzizkiak bein baño sañiago izaikia (objeto material) adierazten daula dirudi : baña Gipuzkoa'n « agerkari » manifestador da-ta, boletin, publicación adierazteko itz ori ezin artu ta erabili geinke. Ager, ageri, agiri aenbaten dira-ta, publicación adierazteko « kari » erabili nai ba-da, agerkari baño agerikari naiz agirkari obeto legokela deritxat.

-Gai -Kai.

Erabilkerea.

Izen, zeindin eta aditzakin erabili da.

Izenakin : abadegei, apezgai (gei), andregai, andregei, ategai, buztarñgei, jabegei.

Zindiñakin : andigai, apaingai, beañgei, berdinkai, nausigai.

Aditzakin : emarkai, esakai, azkai (kei), egingai, ezargai, jankai, igorgei, jingai (gei), josgai, izakai, salgai (gei), etc.

Iku'pena.

Iku'pen bi daukaz : *egingai*, lo que está por hacerse ; *lankai*, instrumento de trabajo.

1° Itzik geyenetan atzizki onen iku'pena auxe da : Itza-ren lenengo atalak diku'ana izateko, on eta egokia dana : ori izateko dagona ; baña oraindik ez dana. « Lo destinado a ser aquello que significa el primer elemento componente ; apto para ser ; pero sin serlo todavía. »

Arakai (aragi-gai) esakai, eskai (esi-gai) azkai, ategai, azpigai (gafi) burdingai (gei) buzta'rigai (gei) ekai (egingai) ezargai, ihaurgai (gei, kei, ki, kin), idigai (gei) inpingei (*ifingei*) igorgei, ikasgai (gei) jingai, iraku'rgai (gei) irungai (gei) karelgei, kupelgai, lastogei, jabegei, nausigai (gei) opagei, salgai (gei) saskei, sinesgai, sinisgai (gei) sugai (gei) (suga'ri). zera'magai, zezengei, zezingai (gei) zimisgai, zumisgai.

2° Iku'pena pizka bat edatuaz, « aspirantea » adierazo daike :

abadegei, apezgai (gei), andragei, andregai, bordalgei, emaztegai (gei) ezkongai (gei) gizongai (gei) senargai (gei).

3° Zerbaiterako on eta egoki dana : bidea (medio) :
apaingai, bizikai, jankai, osakai, sendagai.

4° Lankaya (instrumento) itz gitxi batzuetan adierazten dau :

astikai (astinkai) látigo ; arilkai, berdinkai, iñauskai, irazkai, irozkai, lankai. Astarloa'k izakai (objeto, cosa, ente) sortu eban ; baña efiaren izaiki obeto dagola deritxat.

Buzta'ria egin baño len buzta'rigaya deritxogun zulari,

bein buztafia egin ezkerro, buztafigaya iñok ez deritxo : ezkongai, ezkondu baño len ; baña ezkondu dana, ez da ezkongai : augaitik « publicación » adierazteko « agerkai » ezin artu geinke.

Gailu -Kailu.

Napaf, Laburditar eta Zuberotafen « *gailu -kailu* » ta gure « *-gai -kai* », aenbaten dira. « Lo destinado a ; lo que sirve para. »

Hazkargailu (Duv) remedio, fortificante : baragailu, obstaculo : begiragailu, defensa : berhagailu, complemento : edergailu apaingailu, adorno : afapagailu (Duv) cepo : asperkailu (S.P) vindicacion : bizigailu, viveres : bizkailu, cosa propia para reanimar : eragozgailu (Duv) obstaculo : estekagailu, estekailu, atadura : hezagailu, lo que sirve para humedecer : gantzugailu (Duv) balsamo : gizengailu, condimento : gordagailu, madriguera : gozagailu (Duv) calmante : gozailu, dulce : jostagailu, jostailu, juguete : iratzargailu (S.P) despertador : kharakagailu (Duv) raspador : lotailu, ligadura : lotgailu, venda : ohargailu (S.P) signo : ongailu, condimento : onkailu (id) : ordethailu, reemplazante? : oroitgailu, monumento : phizgailu, phizkailu, cordial : sendagailu (Duv) remedio : sentagailu, fortuna : tapagailu, tapailu, remiendo, tapa : ungailu, abono : txestailu, gusto?

Publicacion, boletin adierazteko agerkailu ondo ez legoke ; baña berez itz egokia ba'litz be, atzizki ori ezagutzen ez daben euskaldunentzat itz ifigari litzake-ta, obe da ez aitatu.

-Kizun.

Atzizki au aditzakin erabilten da : oraitik, damukizun eta lotsakizun : bearkizun eta luzakizun idoro dodaz.

Ikuřpena.

Duvoisin' ek beste idazle (batzuk be bai) atzizki oni ikuřpen berezia ezafi ta itsatsi eutsan : « ble » amaitzen diran erderazko zeindiñen ordez erabili eban : baña onetan okeř egon zala dirudi.

Ahankizun, facil de ser olvidado, olvidable : hautskizun, frangible : autakizun, elegible : higikizun, movable : hilkizun, mortal (S.P) : leihakizun, deseable : luzakizun, demorable, prórroga : medeakizun, reparable : onheskizun, acceptable : oroithkizun, memorable : salkizun, venal : sendakizun (Ax) sanable : zabalkizun, *extensivo* ?

Atzizki onek, zeindiñal barik, izenak dagiz eta « objeto de acción futura » adierazten daula diñoe « objeto de acción » dala uste dot : *acción futura* zergaitik izan bear danez dakust : etorkizun eta ikuskizun'ek ori eraso dautsela deritxat.

Barkakizun (AN, L) perdón, indulgencia : Konpesakizun (B) materia de confesión : damukizun (B) objeto, motivo de arrepentimiento : Egikizun (B) quehacer (AN) acto : eginkizun (G) quehacer : elizkizun, función de iglesia : eramankizun (G) sufrimientos : eřankizun (BN) rumor : (AN = BN) proverbio : esakizun, objeto de conversación : eskakizun, objeto de una súplica : ezinkizun (Ax) imposibilidad (cosa imposible) : gertakizun (G) suceso ; ibilkizun, objeto (proyecto) de viaje : igarřkizun (B) acertijo, objeto de adivinanza : ikaskizun, lección, objeto de estudio : ikuskizun (B, G) espectáculo, objeto de visión : irakurřkizun, objeto de lectura : maitekizun (Bart) objeto de amor : gomutakizun (Bart) lotsakizun, bochorno, oprobio : ondakizun (Añ) ruina ? : sentikizun (B) sentimiento : objeto de recuerdo : pensakizun (Bart) objeto de pensamiento : siniskizun (Bart) objeto de fé : uřikalkizun

(AN) objeto (digno) de compasión : salkizun (Duv) (venal), objeto en venta. Damukizun, objeto de arrepentimiento : lotsakizun, oprobio, objeto de vergüenza, luzakizun *prórroga* izan ezkeru, agerkizun edo agirkizun *objeto de publicación* adierazteko itz egokia litzakela dirudi.

-Tza.

Atzizki onek be ñoz baño sañago izaikia (objeto) adierazten dauko esan lei : jayotza, bizitza, eriotza, agintza (promesa, legado) egoitza, residencia, ekintza, empresa, emoitza, emoitza, dádiva, emantza, producto, eskintza, ofrenda, etxaguntza, propiedad, ezkontza, matrimonio, garaitza, victoria, laguntza, auxilio, laborantza, luñlantza, agricultura, ohitza, costumbre; ohointza, uhintza, robo, oturuntza, alimento, comida, puzkantza, residuos, triskantza, destrozo, zañtza, vejéz. Onelan : ager (tu) tza, agir (tu) tza, « publicación objetiva » izan daiteke.

-Gintza -Kintza.

« Publicación de la Academia Vasca » diñogunean, beste ezer baño geyago auxe adierazo nai dogu : auréan daukagun idaztiñoa *nok* argitaratu dauan. Orétarako -gintza naiz-kintza atzizkia berezibizikoa dala deritxat. Aurgintza, seingintza, umegintza (parto) bidagintza, acto de abrir o reparar caminos : beargintza, faena; langintza, trabajo : lugintza, labranza, etc.

Onelan ba, eguñkintza, atxurkintza esaten da-ta, « Publicación de la Academia Vasca » « Euskaltzaindiaren agerkintza » esango neuke.

DEL VOCABLO VASCO CORRESPONDIENTE A “ PUBLICACIÓN ”

(ENMIENDA AL TRABAJO DEL ACADÉMICO Sr. EGUZKITZA, PRESENTADA EN LA MISMA SESIÓN POR DON R.-M. DE AZKUE)

Después de exponer un sin número de derivados de los sufijos *-kari*, *-gai* y *-kai*, *-gailu*, *-kizun*, *-tza* y *-gintza* (que Añibarro en dos voces terminadas en *r* dijo *-kintza*), propone el Sr. Eguzkitza tres neologismos como correspondientes al vocablo « publicación » : 1º *agerkizun* edo *agirikizun* « objeto de publicación » *adierazteko itz egokia litzakela dirudi*; 2º *agertza*, *agirtza* « publicación objetiva » *izan daiteke*; 3º *egurkintza*, *atxurkintza* *esaten da-ta* « Publicación de la Academia Vasca » *Euskaltzaindiaren agerkintza* *esango neuke*.

La voz « Publicación » tiene, según la Academia española, dos acepciones (de hecho resultan tres) : una (que vale por dos) acción y efecto de publicar ; la otra, obra literaria o artística publicada.

Asienta nuestro caro colega que cuando decimos « Publicación de la Academia vasca » queremos manifestar sobre todo quién ha publicado el pequeño escrito que tenemos delante. Por lo ménos en esta enmienda tratamos tan solo de la cosa publicada, no de la corporación que la da a luz. El neologismo *agerkizun* que da él como aceptable, como tal figurará en la pequeña lista que se expone al fin de este trabajito : el vocablo *agertza*, que también nos propone, no parece tan aceptable por la misma razón que da él para rechazar *agertari* : la de tener varias acepciones. Son muy marcadamente distintas las